

DROGETEN

ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldirakaria
2023ko MAIATZA · 322 zenbakia



Ekainaren 3an,
euskara plazara!



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

Gaia: ume-kantua.

Neska txikia zera zu

(Entzuteko: www.alboka.es)

Neska txiki-txiki-txikia zera zu
ezpadezu jaten isil ta gogotsu.
Neska haundi-haundi egin nahi badezu
dan-danetik asko jan behar dezu.

Zopatxuak eta babak bazkaritan
talo ta esne beroa afaritan.
Hau amaxondako,
hau aitatxondako,
hau umiandako.
O hazten dijoa,
gure neskatoa!



**Euskal
Birusa
Elkartea**

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran, Estibalitz
González, Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA

ETA MAKETAZIOA:

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Xabier Ziarsolo.

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco',
Julene Irazu, Patxi López,
Valentin Mugarza
eta Naiara Undagoitia.

ARGAZKIAK:

Alboka Musika Eskola, Graxi Arregi,
Artarrai Mendi Taldea,
Juanmi Bravo, Klemen Corredera,
Angel Mari Gastón, Eider Gisasola,
Ermuko Haurreskola,
Estibalitz González,
Montse González, Lorea Gorostiza,
Metal Legion, Valentin Mugarza,
Nahia Ruiz Albizuri, Tokikom,
Dorleta Vidal eta Javi Zuazua.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Maren Agirre,
Irene Basagoiti
eta Piedi Eizagirre.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



LOREA GOROSTIZA · Grezia

“Hemengo harriek argi ezberdina dute”

Duela 15 urte joan zen Mendarora bizitzera Lorea Gorostiza ermuarra, etxebizitzaren prezioak eraginda, besteak beste. Gogorra izan arren, herri horretako ohiturak bere egiten joan zen, eta 2021ean Lanbide Heziketako ziklo bat ikasteari ekin zion. Orain Grezian dago, Erasmus programari esker praktikak egiten.

Testua **DORLETA VIDAL**

Erabaki erraza izan zen Greziara joatea?

Bai eta ez. Alde batetik aukera ezin hobea zen, bai ikasketei dagokienez bai maila pertsonalean ere; bestalde, tristura handia sortzen zidan senarra eta bi alabak hemen uzteak... Azkenean senarra izan zen gehien animatu ninduen. Nire euskarri handiena da.

Nola imajinatzen zenuen herrialde hura?

Askoz ere garbiagoa, modernoagoa... zainduagoa. Kaleak, etxeak, lurra... zaindu gabe daude, apurtuta, zikinak... bi aldiz jausi naiz! Atenasera heltzean, hogeita hamar urte atzera egin izan banu bezala sentitu nuen. Pobrezia handia dago, soldatak oso bajuak dira, pertsona gehienek bi lan dituzte... hala ere, jendea oso-

“Aukera ezin hobea izan arren, senarra eta bi alabak hemen uzteak tristura handia eman zidan”

oso atsegina da. Janaria ere izugarri ona da: arrain, haragi, barazki eta fruta ugari dago, eta orokorrean asko gustatzen zait.

Zer moduz moldatu zara hangoekin?

Hasieran asko kostatu zitzaidan jendea ezagutzea, baina gero espainiar batzuk ezagutu nituen etxetik gertu

SAN ANTONIO
**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63

JULEN

**JULEN IZARRA
GARRAIOAK**

Bidegain kalea 1
48240 BERRIZ
636 958 339

**AMAIA
HARATEGIA**

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen



bizi direnak, eta herrialde ezberdinetako neska kua-drilla bat ere egin dut. Asteburuetan auzo ezberdinetan gelditzen gara zerbait edateko, eta nik normalean ardoa edan izan ohi dut, baina hemen oso garestia da, eta pitxer antzeko bat eskatzen dugu, biren edo hiruren artean edateko. Oso hiri garestia da: kafeak 3 eta 5 euro artean balio du, eta ardo kopa batek 5 eta 7 artean! Supermerkatua ere garestia da, eta ostiraletan etxe azpian jartzen duten azokan erosten ditut frutak eta barazkiak.

Nolakoa da Atenas?

Hiri zoragarria da, magia dauka. Auzo guztiek dute zerbait berezia... eta gero Akropolia dago. Handik gertu bizi naiz, eta asko gustatzen zait kaleetatik ibiltzea eta ilunabarra ikustea. Hemengo harriek argi ezberdina dute. Benetan hiri berezia da.

Zerbaitek eman dizu atentzioa?

Hemengoak oso erlijiozaleak dira, eta elizaren bat ikusten badute aitarena egiten dute birritan. Horrez gain, katuak kaleetan bizi dira, eta jendeak janaria eta ura ematen dizkie: ondo zainduta daude! Edozein tokitan topa ditzakezu, eta haiekin jolastu daiteke. Greziako kaleak eta hondartzak katuz beterik daude, baita irlak ere.

Ondo moldatzen zara hizkuntzarekin?

Gazteek ingelesa dakite, eta ingelesez ondo moldatzen naiz, baina gehienek grekoz bakarrik hitz egiten dute. Hori dela-eta, lanean greko apur bat ikasi behar izan dut, baina lanetik kanpo Googleren itzultzailea erabiltzen dut. Eskerrak San Google dagoela! Askotan keinuen bidez ere ulertzen gara!

Zerbaiten falta sentitzen duzu?

Familiarena. Astebete etorri zitzaizkidan bisitan alaba



Lorea Gorostiza Akropoliako Partenoiaaren aurrean, Atenasen.

nagusia eta senarra, eta horrek asko animatu ninduen! Lagunen falta ere sentitzen dut, eta baita tomate friji-tuarena eta kalimotxoarena ere!

Nolakoa da zure egun arrunt bat?

Goizetan ibiltzera joaten naiz, eta arratsaldetan bost orduz egiten dut lan, Enekapedia izeneko enpresa batean. Umeentzako antzerkiak antolatzen ditugu, Greziako historiarekin, mitologiarekin eta kulturarekin zerikusia dutenak. Lanetik irtetean, eguraldi ona badago, hondartzara joaten naiz eta ilunabarra ikusten dut. Bestela lagunekin irteten naiz: Grezian jai-giroa dago egunero! Asteburuetan irlaren batera joaten naiz lagunekin, eta baita diskoteketara ere! Parranda handia egiteko aukera dago!

Noiz bueltatuko zara Euskal Herrira?

Maiatzaren 31n, eta sentimendu ezberdin asko ditut. Alde batetik, etxera bueltatzeko gogoia daukat familia ikusteko; bestetik, hemen oso gustura nago, lagunartean.

Ermura bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Orain dela lau urtera arte bueltatzeko gogoia izan dut, baina gaur gaurkoz ez dut uste. Batek daki, baina hala ere Ermua beti izango da nire herria.

“Ermutik ia urrundu gabe, gauza asko daude ikusteko”

MIKEL YARZA UNAMUNO · Naturazalea



Artarrai Mendi Taldeak antolatuta, Mikel Yarza Unamunok, Iñaki Iturriagagoitia Dominguez laguntzaile izanik, bi txango gidatu ditu dagoeneko Ermuko mendietan barrena, inguruaz ikasi ahal izateko. Txango hauek urtero egiteko asmoa dago, eta bertoko fauna eta floraz gozatzeko aukera eskaintzen dute.

Testua NAHIA RUIZ ALBIZURI

Nola sortu zen txango hauek egiteko ideia?

Ingurumenari dagokion udal partidatik, Artarrai Mendi Taldeak Zuhaitz Eguna antolatzen du normalean. Oraingoan, ordea, hori egin beharrean, txango didaktiko bat egitea proposatu zitzaion, eta haiek ni ezagutzen nindutenez, niri luzatu zidaten eskaintza.

Iazko azaroan burutu zenuten lehen txangoa, eta aurtengo maiatzean izan da bigarrena. Zer erakusten da txango hauetan? Zein da asmoa?

Hasierako plana Ermua ingurutik mendi buelta bat egitea zen, bertan dagoen natura erakusten: bai txoriak, bai animaliak, bai landareak... edozer. Hortik aurrera baldintzak nik ipini nituen: adibidez, benetan

helburua bada zerbait ikustea eta ikastea, ezin zela 10 edo 15 kilometroko txango bat izan. Antolatu genuen ibilbideak lau kilometro inguru izan zituen, eta hori burutzeko lau ordu inguru behar izan genituen, eta uneoro baten batek kontrolatzen zuelako denbora! Hala ere, ibilbide motza izan arren, gauza asko ikusteko aukera egon zen: animalien arrastoak, kakak, erlauntza batzuk eta horrelakoak.

Erraza da ibilbidean ikusiko dena aurreikustea?

Beno, hegaztiekin adibidez gertatzen da hain talde handia izatean zailagoa dela hauek bistaratzea. Horretaz gain, txangoa planifikatua egon arren egunean bertan hainbat gauza berri agertu daitezke erakutsi



Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305



Argazkian, maiatzeko txangoan parte hartu zuten lagunak. Mikel Yarza eserita agertzen da argazkiak, eskumatik hasita bostgarrena.

daitezkeenak. Azaroko txangoan, adibidez, okil handiak egindago zulo batzuk ikusi genituen, eta oraingoan zulo horietan garrapoak egon dira eta janaria kabira eramaten ikusi ditugu.

Nolako lana izan da txango bat gazteentzat zein helduentzat antolatzea?

Txango hauek normalean umeentzako bideratuta egoten dira, eta hala ere gehienetan gurasoak eta nagusiak izaten dira gehien disfrutatzen dutenak. Askotan, puntu batetik aurrera umeek arreta galtzen dute ibilbidea luzea bada, eta zerbait behar izaten dute eskuetan interes hori mantentzeko. Hala ere, edukien aldetik oso antzerakoa da bai umeekin eta baita hel-

duekin lantzen dena. Kontzeptuak eta erakutsitakoa oso antzekoa izan ohi da eta bi taldeentzako arrotza izaten den zerbait da, gauza berri bat da.

Zelako erantzuntza jaso duzue? Txangoetara joan den jendea gustura geratu da?

Hasteko jende asko gerturatu izan da bi txangoetara,

“Txango hauek umei zuzenduta egoten dira, baina helduak izaten dira gehien disfrutatzen dutenak”

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA
PALACIOS SM
 EMPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
 GREMIOEN KUDEAKETA
 ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com

660 72 95 03 • 659 75 74 59 • 943 53 92 23

ANTXITXIKETAN AISIALDIA

- Diputazio kalea, 8 - 10, behea.

PSIKOMOTRIZITATEA LOGOPEDIA
PSIKOTERAPIA LUDOTEKA
ERREFORTZU ESKOLARRA

943 576 124 🕒 **10.00 - 13.30**
747 453 607 🕒 **15.30 - 19.30**

Antxixiketan Info@antxixiketan.com

eta eskertzekoa da. Lehenengoan jende gehiago batu zen arren, bigarrenean zegoen eguraldiarekin berrogei bat inguru pertsona batzea ere oso ondo egon da. Hurbildu izan den jende gehiena umeak eta haien gurasoak izan dira, hala nola Artarraiko kideak eta gero norbanako batzuk ere. Eta jaso dugun erantzuna ona izan da, jendea gustura egon da. Bigarren aldiz ere hau aurrera eraman ahal izatea eskertzekoa da, eta jendeak benetan gustuko izan duelaren seinale.

Horrelako harrera espero zenuten?

Egia esan ez. Horrenbeste jente egotea harritzekoa izan da, pasada bat! Deialdi masiborik egin gabe jendea hurbiltzea izugarrikoa izan da! Egia da bigarren



txangorako deialdia gehiago zabaldu dela, baina lehenengoan ez zen horrelako zabalkuntzarik egin eta hala ere jendea animatu egin zen.

Jarraitzeko asmorik bai?

Bai. Berez Artarrairekin badago urtero egiteko plana. Lehenengoaz azaroan izan zen hor proposatu zelako, eta oraingoan maiatzean izan da sasoi hobea delako. Hurrengo urteetan udaberri partera egitea pentsatu da.

Ibilbide bera izango litzateke?

Oraingoaz bai, nahiz eta momenturen batean aldatu beharko den. Ibilbide honetan, Ermutik ia bat ere ez urrundu gabe, gauza asko daude ikusteko. Inguru ezberdin pilo bat ikusi daitezke eta oraindik azaldu gabeko hainbat gauza geratzen dira. Beraz, bai, interesgarria izango litzateke ibilbidea aldatzea, baina zaila iruditzen zait hain hurbil horrelako ingurua topatzea. Agian dagoen antolaketa ere aldatu beharko litzateke: egin diren txangoetan ez da zerrendarik egon zenbat jende joango den jakiteko, eta parte-hartzaile kopurua ez jakiteak zaildu egiten du zer egin daitekeen eta zer ez pentsatzea. Ezberdina izango litzateke kopuru txikiago batean helduak batzea adibidez, eta haiek nahi duten hori ikusteko txango bat prestatzea. Hala ere, esan bezala, oraindik gauza asko dago ikusteko. Errekalde inguruan adibidez anfiboak daude, hainbat

“Badaude hainbat zonalde fauna eta flora ikuskatzeko aproposak direnak”

“Ez genuen espero horrenbeste jende etortzea, harritzekoa izan da, pasada bat!”

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa

GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzordua: 688 85 18 95

KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

OSTEOPATIA
Pablo Lucena

617 680 156
info@osteopatialucena.com
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)

“Momentuz jarraitzeko asmoa dago, eta hurrengo txangoak udaberrian egingo dira”

“Udazkenean Martxoaren 8a plaza inguruan jarritako habi-kutxak begiratuko ditugu”

landare eta hegaztiak ere ikusi daitezke. Ez dugu esan nahi orain Ermua inguru osoa honetarako ona denik edota ikusten dugun berde hori autoktonoa denik, baina badaude hainbat zonalde fauna eta flora ikuskatzeko eta hauen inguruan ikasteko proposak direnak.

Azkenik, azaroko txangoan habi-kutxa batzuk jarri zenituzten Valdespina parkean. Badakizue txoririk egon den?

Bai, Martxoaren 8a plaza inguruan hainbat kutxa jarri genituen, eta iraila inguruan bueltatxo txiki bat egingeko asmoa dago, habi-kutxak jeitsi eta txoriak egon diren edo ez ikusteko.



Quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]
www.quetzalmoda.com
Zubiaturre, 2 - 48260 ERMUA | 943170065

LEIRE RASCO
BIZARTEGIA
ILEAPAINDEGIA
943 17 17 96
@LEYTHEBARBER
C/GOIENKALE NS
ERMUA (BIZKAIA)

ileapaindegia
Silvia
peluqueria
Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata 8:30-13:00
943 170474 6888 19336

solozabal
tabakoak
torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

“Bertsue ez dira berba soillek, istorio bat kontatzie da, entzuliai eragittie”

GRAXI ARREGI · Bertso epaillie



Mallabitarra jaiotzaz, bizitzak gero Markiñara eruan eban. Gradu bikoitza ikasi ostien Komunikazioan eta Zuzenbidean, azken arlo horretan dihardu biharrien, aholkularitza juridikue emoten. Umetatik bertsozaletuta, gaztetan hasi zan bertso kantari. Bizkaiko Txapelketan epaillie lanak eitten topau dogu.

Testua **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

Noz hasi ziñen bertsoan?

Umetatik euki dot bertsozaletasune. Oso gaztetan hasi nintzen bertso eskolara, bertso udalekutara, bertso saietara... juten. Asko gustau izen jate txikittetik. Egixe da bertsoan, kantatzen, sekule ez dotela nire lekue topau, urduri jartzen nintzen, baiña beti ibilli izen naz bertsoen bueltan.

Bapatekuek edo bertso-paperak osatziek, zer gustatzen jatsu gehixao?

Irakurle edo entzule gisa bixek gustatzen jatez, momentuen arabera. Etxien goxo-goxo nauela bertso-paper on batzuk irakurtzie asko gustetan jate eta plazan bapateko bertso saieuk entzuten be itzel disfrutatzen dot. Bertsoan eitteko orduen gero bertso-paperak nahixao.

Iñoz pasau jatsu jarritako gaixai nundik jo ez dakizule geratzie?

Pasau ahal dan zeoze da, baina normalien beti bururatzzen jaku zeozer, nahiz eta ez izen egokixena iguel. Zer esan ez dakizula geratzie oso gatxa da, idea bat edo iritzi bat beti etorten jatsu burure.

Jakin dogu bertso epaillie zabizela. Zelan etorri zan proposamena?

Beti ibili izen naz herri maillan bertso saieuk antolatzen, gai-jartzaille.... Ander Txakartegi lagun epailliek esan osten gazte jentie bihar zala epaitzeko, azaldu osten zelan eitten eben eta hor nabil! Pixkat kasualidadez, herrigintzatik eta beti euki doten bertsozaletasunek bultzatute hasi nintzen.

	ORBE TOLDOS Y PERSIANAS
Toldoak / Ostalaritzako muntaiak / Instalakuntzak eta konponketak Persianak / Segurtasun pertsiarik / Pertsiana dekoratiboak Motorizazioa / Manparak / Estoreak / Eitxo-sareak	
Tailerra: Zearreko Buelta 2 943 17 66 34 - 630 01 13 41 48260 Ermua (Bizkaia)	Erakusketa: Karabixa 1 48260 Ermua (Bizkaia) 943 17 98 60 persianasorbe@gmail.com


ETXETRESNA ELEKTRIKOEN SALMENTA ETA KONPONKETA
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



Horretarako formaziōnik jaso dozu?

Bai, formazio puntaletatik aparte (Txapelketa aurrekuek esaterako), epaille eskola iraunkorra deitzen dana dago martxan: Euskal Herriko epaille danok batu eta trebatze saiuek eta bestelako formakuntzak eitten doguz urtien ziherr. Esaterako, bertsoarixekin zuzenien be ein izen doguz: kantau ostien bertsoaldi bakoitzien zer dauen ondo zer txarto komentau, gaixen egokittasune, puntuaziñuan proportzionaltasune eztabaidatu...

Epaille bakoitza zeozer zehazki erreparau bihar dotse edo bertso bere osotasunien balorau bihar dozue?

Danok epaille irizpide batzuk jarraitu bihar doguz, publikuek dienak, eta euron arabera balorau. Bakoitzak bere baremue oso argi finkau bihar dau, eta tinko eutsi. Hau da, niretzako gaur 5 dana hurrengo saiuen be horrela izatie, eta beste epailliantzako bertso bera 8 bada hurrenguen be halan izatie.

Zer da zuretzat bertso on bat?

Bertso on batek hainbat baldintza bete bihar dauz, ez bakarrik formalak: baliabide paratestualak, denbora

mugatu, doinue, errima eta oinak, neurrix, hizkerie... Nire ustez, bertso on batek esan egin bihar dau, entzuliak esaten ari dan hori irudikatzeraino. Bertso ez dira berba soillek, istorio bat kontatzie da, entzuliai eragittie. Aspektu formalak ondo betetziaz gain entzuleari eragiten dotsanien, orduan izango da ona bertso bat.

“Zer esan ez dakizula geratzie oso gatxa da, idea bat edo iritzi bat beti etorten jatsu burure”

“Epaille bakoitzak bere baremue oso argi finkatu bihar dau, eta tinko eutsi”

Abenduen Bizkaiko finala. Bide luzie dakazue bertsolari, gai-jartzaille eta epaillioek. Ze konpromiso eskatzen dotsu?

Momentuz udaberriko fasien nabil epaille lanetan. Maiatzien eguenero bertszuez gozatzera eta epaitzera juen biharko dot Bizkaiko txoko desbardinetera. Saiuaren aurretik, puntuaziño bajuena jarri notsan bertsoaldie, altuena jarri notsana eta erdi ipurdiko bat barriro entzuten dittut, nire baremue argi izateko. Bertsolariexek lan ikaragarrixek eitten dabe Txapelketa prestatzeko eta epaillion zeregiñe da lan hori errespetuz tratatzie eta baloratzie: eurak gero eta prestatuago datozen modure, geu be horrela egon bihar gara. Niretzat behintzet konpromisorik haundiñe lana ondo eittie da, bertsoan ari danantzat epaie ahalik eta justuena izan dein.

Bizkaiko txapelketan bizkaieriek lekurik bai?

Bai noski, beti be ondo eta tranpa barik erabiltzen bada. Bertsolari askok egoki erabiltzen dabe, baina ondo zaindu bihar da bertso berien batua eta bizkaiera ez nahastie. Askotan, bertsolariexek ezinien dabillienien bizkaierara jo leike erriman edo neurrixen hobeto sartzen jakolako (edo aldrebes, bizkaieraz jardun eta batua sartu), baina normalien nabarmen gelditzen da eta zigortu leike.

Graxi nun gusturen, oholtza gaiñien edo haren barrenien?

Haren barrenien beti gusturago, nahiz eta epaille izatiek badakan bere karga, eta are gehixao bertsolarietzak hartu daben pixuakin. Epaiek ez dira danon gustukuek

"Bertsolarixek lan ikaragarrixek eitten dabe eta epaillion zeregiñe da lan hori errespetuz tratatzie"

"Epaiek ez die danon gustukuek izaten, eta kritika dezente jaso doguz txapelketa batzuetan"

izaten eta kritika dexente jaso doguz esaterako Euskal Herriko Txapelketan, bai sareetan zein prentsan. Ia aurtengue zelan doien! Dana dala, Txapelketarako ezinbestekuek dira epailliek eta gure ardura ahalik eta justuen, prestatuen eta onduen epaitzie izango da.





- Akordeoia	- Gitarra	- Pianoa
- Biolina	- Gitarra elektrikoa	- Saxofoia
- Biolontxeloa	- Gitarra baxua	- Trikitrixa
- Bonbardinoia	- Lengoia musikala	- Tronboia
- Flauta	- Klarinetea	- Tronpeta
- Kantua	- Panderoa	- Txistua
	- Perkusioa	

**MUSIKA
ESKOLA**

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00
albokamusikaeskola@hotmail.com



ITZE
OPTIKA
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia



"Mallabitarrok egina" jarduera berriro burutuko da

Berbalagunek antolatuta eta zortzigarren aldiz, azken urteetan ohi bezala "Mallabitarrok egina" ekimena egingo da maiatzaren 27an, zapatuan. Hitzordua 10:00etan dago jarrita, petrilean eta ortu ekologikoak bisitatzuz emango zaio hasiera egunari. Ondoren kotxeetan Trabakura abiatuko da eta oinez egin handik Geriko Longa Nagusi baserrira artekoa. Bertan jaiotako Francisco Antxia, Longa Jeneralaren gainekoak ezagutzeko aukera egongo da, berari buruz idatzi direnak hizpide. Trabakura bueltan, Goiko tabernan bazkari autogestionatua egingo da, Mallabiko musikari gazteek girotuta. Familian burutzeko moduko ekintza da eta izena emateko bideak Kultur Etxea edo 663 07 04 92 telefonoa dira.

Elordik buruz buruko finala jokatu du

Dario Gomez ezkaraitarra gailendu ostean, buruz buruko txapelketako finalerako txartela eskuratu du Aitor Elordik. Partida Bizkaia frontoian jokatu da ekainaren 4an, eta Jokin Altuna amezketarra izango du aurkari. Urte arrakastatsua izaten ari du malla-

bitarrak: lau t'erdiko txapelketan finalerdietara ailegatu zen eta binakako txapelketan garaile izan zen Zabaletarekin bikote. Frontoian pantaila erraldoia eta Bilborako autobusak jarriko ditu Udalak; bueltarako, afaria antolatzen dihardute herritarrek.

Hainbat ekintza burutuko dira hamabostaldi kulturalaren baitan

Maiatzak 29, astelehena. 16:15, hitzaldia: "Ezagutu kolesterola", Kontzejuzarrean. Ondoren, txokolatada bazkideentzat Jubiletxean (aurretik 943 17 66 02 zenbakira deitu beharko da).

Maiatzak 31, asteazkena. 18:30-20:30, Arteterapia, Kontzejuzarrean.

Ekainak 1, osteguna. 19:00, Menditour dokumentalak, Kontzejuzarrean.

Ekainak 2, ostirala. 16:30, Olinpiadak eskolan. 18:30, hitzaldia: "Acercándonos a nuestros cuerpos: Salud menstrual", Kontzejuzarrean.

Ekainak 3, larunbata. 11:00, Olinpiadak eskolan. 17:15, Pilota partidu profesionalak: Bizkaia torneoa, taldeka, frontoian: Lau t'erdikoa / Binakakoa / Buruz burukoa. 20:00, Udaberriko kontzertua: Mendibil abesbatza eta Zornotzako Dizdira ahots taldea elizan.

Ekainak 4, igandea. 10:00, Nekazaritza eta artisautza azoka frontoian. 13:00, Gazte Alai dantza taldearen emanaldia frontoian. 11:00, Olinpiadak eskolan.

Ekainak 7, asteazkena. 18:30-20:30, Arteterapia Kontzejuzarrean.

Ekainak 9, ostirala. 16:15, denboraldi bukaerako jai eskolan.

Ekainak 10, larunbata. Mendi irteera: Gereako ur-jauziak. Trabakutik 10:30ean. 14:30, bazkari autogestionatua frontoian. Arratsaldean pilota partiduak frontoian. 18:30, Antzerkia Kontzejuzarrean.

Ekainak 11, igandea. 9:00-14:00, II. Bizikleten erakusketa parkean.

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

“Aurtengo Ermuan Bagaran adin eta gustu guztietarako ekintzak burutuko dira”

EIDER GISASOLA eta NAROA BEITIA · Euskaltzaleen Sareko kideak



Ekainaren 3an burutuko da Ermuan Bagara egitasmoaren 4. edizioa, eta antolatzaileek ekintzaz jositako egitaraua prestatu dute, goizetik gauera bitartean gauzatuko dena. Kamiseta soinean, herriko euskaltzaleak euskararen jai erraldoiaz gozatzeko irrikan daude.

Testua **DORLETA VIDAL**

Hitz gutxitan esanda, zer da Ermuan Bagara?

Ermuar guztiak batzen dituen ekimena da, herrian sortutakoa, eta euskara duena hari nagusi. Oso ekimen zabala da, esparru ezberdin askotako lagunek parte hartzen dutelako, baina guztiek daukate euskara komunean.

Noiz burutu zen lehen edizioa eta zer dela-eta sortu zen?

Lehen edizioa 2016an egin zen, Euskal Birusa Euskara Elkarteak egindako gogoeta prozesu baten ondorioz. Konturatu ginen Ermuan ekimen asko antolatzen zirela, baina talde bakoitzak bereak antolatzen zituela. Horri erreparatuta, Ermuan Bagarekin ekimen guztiak batu nahi izan genituen, eta euskaltzaleak diren norbanakoak eta elkarteak saretu. Hasieran saretzea bera zen helburua.

Izan ere, garrantzi handia ematen diozue sare horri, ezta?

Bai, lehenengo edizioan Ermuko Euskaltzaleen Sarea



sortu zen, eta talde horrek antolatzen du Ermuan Bagara hasieratik. Horrez gain, euskararekin lotutako beste ekimen batzuk ere sustatzen ditu herrian, tartean Euskaraldia.

Nortzuk osatzen dute sare hori?





Eider Gisasola ezkerrean eta Naroa Beitia eskuman.

Merkatari eta Ostalari Elkarteak, kirol talde ezberdinek, Alboka Musika Eskolak, herriko eskola guztiek (sekulako lana egin dutenak aurten!), instituzio batzuk... Horiez gain, badaude herritar asko ere. Boluntarioz osatutako talde irekia da, eta nahi duten herritar guztiek parte hartu dezakete.

Zenbat denbora daramazue aurtengo jaia antolatzen?

Hiruzpalau hilabete. Euskaltzaleen Sarea sasoian dago, eta aurten gainera azpi-batzordeak sortu dira ardurak banatzeko (kirol-batzordea, ekitaldi-batzordea, hezkuntza-batzordea...). Baliteke horrek ere lana erraztu izana eta, aldi berean, taldea gehiago saretu du.

Ekainaren 3an hainbat ekintza burutuko dira goizetik gauera bitartean...

Bai, 10:00etatik 21:00ak arte, eta Orbe Kardinalaren plazan zein Martxoaren 8a plazan burutuko dira. Kirolguneak, erakusketak, dastaketak, mintzodromoa,

kahoota, dantza ikastaroa, herri bazkaria, erromeria... gustu eta adin guztietarako ekintzak egongo dira. Horrez gain, aurreko eta osteko egunetan ere ekimenak burutuko dira (ikusitako egitaraua hurrengo orrialdean).

Ekitaldi nagusia eguerdian egingo da. Zertan datza?

Aurtengo gaia euskararen transmisioa da, modu zaballean ulertuta. Hizkuntzari erreparatuta, familia-eredu ezberdinak aukeratu ditugu, eta haiekin batera Euskaltzaleen Sareko kidea den Olatz Santosek idatzitako mezua irakurriko da.

Nola finantzatzen da Ermuan Bagara?

Udalak dirulaguntza txiki bat eman digu, baina kamisetekin eta egunean bertan burutuko den herri bazkariarekin jasotako diruarekin finantzatuko da. Kamisetak eta bazkarirako tiketak Euskal Biruseko bulegoan daude salgai (Erdikokale zeharbidea 2, 1.), 8:00etatik 12:00ak bitartean.



ermuan bagara



2023

MAIATZAREN 26tik aurrera Astean zehar Ermuko ikastetxe guztietako umeen bideoaren emanaldia. Lehengo tonbola solidarioan.

EKAINAK 1 HITZALDIA: Hezkuntza euskaraz plataformaren eskutik. Lobianon arratsaldeko 19.00etan (Gazte asanblada)

EKAINAK 2 ERMUKO IKASTETXE GUZTIETAKO LHko IKASLEEKIN EKINTZAK: euskal jolasak, herri kirolak, dantzak, mendi buelta,...(Anaitasuna Ikastola, Eskolabarri ikastetxea, Ongarai eskola, San Lorentzo ikastetxea, San Pelayo ikastetxea, IES Ermua BHI eta Antxitxiketan)

MINTZOPOTEOA, arratsaldeko 19:00etan eta **EUSKARAOKEA**, gaueko 21:30ean Eskilarapekon (Gazte asanblada)

EKAINAK 3, euskara gara

10:00 HASIERA

10:00-12:00 KIROL GUNEA: Errotabarri eskubaloi taldea eta Ermua CDren arteko partida mistoak.(Errotabarri eskubaloi taldea eta Ermua CD)

12:00-13:00

- **Postal erakusketa** (Irazki pintura eskola).
- **Arropa tradizionalen erakusketa**(Extremadurako elkarte)
- **Puntu eta josteko ikastaroa haurrentzat** (Ermuko Tonbola Solidarioa)
- **EUSLIDER pintxo irabazlearen dastaketa** (Ies Ermua BHIko EUSLIDER)
- **MINTZODROMOA** (Berbalagun)

- **Herria musikaz alaitu** (Alboka musika eskola)
- **Calva jolasa**, Martxoak 8ko plazan (Gaztela Leongo elkarte)

12:00-14:00 EKITALDI NAGUSIA: Dantza, mezua eta argazki erraldoia.

15:00 HERRI BAZKARIA: Elkarte gastronomikoak: Arari, Leku Eder, Basarri, La Kolina, Malengo, Urdinak, Eguzki alde, Eskilarapeko, Lurpe eta Lobiano Elkarte Gastronomikoa.

Bazkalostean **Ermuan Kantuan** arituko gara mahaian (Gazte Asanblada eta Euskal Birusa)

MARTXOAK 8 PLAZAN

18:00 Dantza ikastaroa (Txindurri txistu eta dantza taldea)

19:00-21:00 Erromeria Mugi Panderoa taldearekin.

Erromeria ostean **KAHOOTA**, izen ematea txikurixan erromeriak iraun bitartean (Kaltxango AEK euskaltegia)

EKAINAK 4 MENDI BUELTA: goizeko 9:00etan Orbe plazatik **Urkoko kobazulora** buelta. Goizeko ibilbide erraza. Eraman kaskotxoa (bizikletakoak balio du) eta linterna (Artarrai mendi taldea)



ELKARTE GASTRONOMIKOAK: URDINAK, LA KOLINA, ARARI, LEKU EDER, EGUZKI ALDE, MALENGO, LURPE, BASARRI, ESKILARAPEKO

Ermuko euskaltzaleen sarea



San Pelaio, Aldapa eta Ongaraiko etxebizitzak, zeru beltzpean. "Mordor" izenburua jarri dio egileak, J.R.R. Tolkien idazle britaniarrak bere liburuetan sortutako fikziozko paisaia gogora ekarri guran. Argazkilaria: Klemen Corredera.




Drogeteniturri eta Berriketan ere Tokikomeko bazkide izango dira

Maiatzaren 12an Ermuan egin zuen Ohiko Batzar Oroko-reen, Tokikomek Ermuko eta Mallabiko *Drogeteniturri* eta Debako *Berriketan* toki komunikabideen bazkide-tza eskariak onartu zituen aho batez. Gauzak horrela, dagoeneko 30 bazkidek osatzen dute euskarazko toki komunikabideen taldea. Guztien artean 78 komunika-bideko sarea osatzen dute; 34 webgune, 30 aldizkari, bost telebista eta bederatzir irati. Guztira, 220 langilek baino gehiagok dihardute taldeko hedabideetan, eta Euskal Herri osoko 299 udalerritara iristen da uneotan Tokikomek. Hamargarren urtemugako balantze positiboa egin zuen Tokikomek batzarrean. "Taldeak elkarlan bide sendoak ireki ditu komunikazioaren esparruko beste era-gile batzuekin" eta barne kohesioan ere "aurrerapauso nabarmenak" egin ditu. Alde ekonomikoan ere balantze positiboarekin amaitu du urtea.



Eskolen arteko txirrindularitzak geldialdia egin zuen Ermuan

Txirrindularitzako Bizkaiko Federazioak eta Ermuko Elkarteak antolatuta Bizkaiko eskolen arteko lasterketetako bat burutu zen Ermuan. Astero udalerreri desberdinean korritzen dute, igande bakoitzeko errepideko bizikleta eta *mountain bikea* txandakatuz. Bizkaiko herri asko eta askok dute txirrindularitza eskola eta horrek suposatzen duen lurralde guztiko neskak eta mutilak bertaratu zirela, 8tik 14 urtera bitarteko 245 hain zuzen ere, adinaren arabera korritu zutenak, lurzoru labainkorrean tentuz manejatuz. Eskolen artekoak, kadeteetara pasatu arte, ez dago saririk aurrengoarentzat eta helmugara iristen direnean ere galarazita dute besoak garaile altzatzea.



Jon Albizu
Ainhoa M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505



ALTALDI
Correduría de Seguros, S.L.
ermua@altaldi.com

INMOBILIARIA J.S.
www.inmojs.com
info@inmojs.com



Probaleku 8 · ERMUA 943 17 01 43 · 943 17 18 02



ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com



Drogeteniturri aldizkariko artikuluak bi liburutan erabili dituzte

Argitaratu berri-berri diren bi liburuk aldizkariko artikuluak erreferentzia bibliografiko bezala hartu dituzte: alde batetik, “Raquetistas. Gloria, represión y olvido de las pelotaris profesionales”, Olatz González Abrisketaren lana, eta bestetik “Munitibar 1937/04/26. Aire-eraso baten kronika”, Ahaztuen Oroimena elkarteak aurkeztutakoa, biak ala biak urteetako ikerketen eta testigantza bilketa ugariaren emaitza. Lehenengoak Irene eta Hipolita Ibaibarriaga erraketisten gaineko informazioa dakarkigu; bigarrenak, Munitibarren bonbaz zauritutako Edurne Ostolazaren berbak hartzen ditu hizpide. Gainera, Mallabiko beste testigantza batzuren transkripzioa ere dator barruan.

Debabarreneko
Kultura eta Sormen
Industrietako (ICC)
enpresa eta
profesionalen
direktorioa

Gizarteak
Fera Aldekoa
E
G
Debegesa



Debabarreneko Kultura- eta Sormen-industrietako enpresen eta profesionalen direktorioa sortuko da

Eskualdeko kultura- eta sormen-sarea sustatzeko helburua duen Debabarreneko Kultura eta Sormen Industrien (KSI) sektorea dinamizatzeko Ekintza Plan berria idazten ari da Debegesa. Horregatik, sektoreko profesionali eta enpresei buruzko informazioa biltzen ari dira, horien direktorio bat egiteko. Era berean, sektoreak dituen behar eta erronka nagusiak aztertzen ari dira, etorkizun hurbilean horiei buruz eztabaidatzeko eta enpresei eta profesionali irtenbideak eta laguntza ematen saiatzeko. Izena eman nahi dutenek, www.debegesa.eus/eu webgunera jo beharko dute.

**OSASUNA * ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

Goienkale 12 *Ilaropandegi bat
baino gehiago!*

943 17 28 09

Egokitutako burua
nabitzeko konketa

Caperos

Probaleku z/g
(ERMUA)

Pintxoak
Razioak
Kaxolak
Plater konbinatuak
Ogitartekoak

699 292 043
636 549 154



Kopi-Fax

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**TALAPARTA
ABERNA**

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) ENKARGUAK 943 030 299



Maiatzean burutu da Euslider proiektuaren ekintza soziala Ermua BHIn

Maiatzaren 17an burutu da Euslider proiektuari amaiera ematen dion ekintza soziala Ermua BHIn, eta egitasmoaren dinamizazioa den Juanmi Bravoren esanetan, aurten pintxo hotz lehiaketa antolatu dute ikasleek, eta bi sari banatu dituzte: pintxorik goxoenari eta pintxorik originalenari. Horrekin batera, irrintzi txapelketa antolatu dute eta, bost gazteren artean, Hera Olive-rrek irabazi du. Pintxo lehiaketan 45 taldek parte hartu zuten, DBHko 1. mailatik 4. mailara, eta irabazleek sari sorta bana jaso zuten. Ermuan Bagara ekimenean, ekainaren 3an, pintxo hauek salgai egongo dira plazan, eta jasotako dirua ikasbidaia finantzatzeko erabiliko dute.



Alboka Musika Eskolak matrikula zabalduko du

Ekainaren 1ean zabalduko du Alboka Musika Eskolak datorren ikasturterako matrikula. Eskolak aukera ematen du hainbat musika tresnetan trebatzeko (klarinetea, saxofoia, tronboia, tronpeta, zeharkako txirula, biolina, biolontxelo, trikitixa, panderoa, baxua, gitarra, gitarra elektrikoa, perkusioa, pianoa...), hala nola musika-konboetan parte hartzeko, bost urtetik aurrerako herritarrei. Informazio gehiago jaso nahi dutenek 943 17 12 98 telefono zenbakira deitu beharko dute, edo Albokako bulegora gerturatu (Goienkale kalea z/g).

Egunean Behin jokoaren edizio berria dago martxan

CodeSyntax enpresak Egunean Behin jokoaren 12. denboraldia abiatu zuen maiatzaren 15ean eta, horrekin batera, martxan jarri zen berriro ere Euskal Biruseko taldea. Aurreko edizioetan bezala, astero irabazle bat egongo da zozketaz tal-

deko parte-hartzaile guztien artean. Sailkapenean lehen postuan gertzen denak, aldiz, azken zozketarako txartela lortuko du. Sari nagusia, oraingo honetan, 100 euroko txekea izango da, herriko jatetxe batean gastatu beharko dena.



CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14

MEDITERRÁNEA
VINTAGE STORE

Arropa eta osagarriak

Orbe Kardinale plaza 6
Ermua, Bizkaia

678 359 337

mediterranea.vintage

Bitsi-denda Tailer propioa Erloju-denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

hanigan's
Irish tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburuetan 10:00etatik.

Kontakutua z/g - 941010527



Argazkia: Metal Legion.

Makis 37 musika taldea:

“Gure estiloa eratzea oso erraza izan zen”

Testua **NAHIA RUIZ ALBIZURI**

Zer dela-eta erabaki zenuten taldea eratzea?

Orain dela bi urte Vertigo Rockera joan ginen Elgoibartik, eta bertan Ermuko batekin elkartu ginen, eta berari esker jakin genuen talde bat bateria eta baxu bila zebilela eta haiekin hitz egitea erabaki genuen. Ermuan geratu ginen zer egin nahi genuen adosteko. Lehenengo kontzertua jotzen hasi eta hiru astera eduki genuen, kantu propioekin eta guzti! Lau hasi ginen baina batekin lehenengo kontzertua baino lehen utzi egin zuen, eta hirukote bezala ibili ginen urtebete. Joan den urteko Sagardo Egunean batu zen laugarrena. Beste talde batekin jotzen zuen eta gurera etortzeko eskatu genion egun horretan.

Zein estilo gustatzen zaiuzue?

Bakoitzak bere estiloak ditu gustuko. Bati Barricada, Roten XIII eta Orihen bezalakoak, baita akustikoak; heavya taldeko beste bati, eta punk zaharra eta euskal rock erradialakeko taldeak ere presente daude. Hala ere, gure estiloa eratzea erraza izan zen, oso natural. Gure teknikaria izan zen Andoitzekin harreman ona izan dugu eta hasieratik esan zigun zerzegoen. Grabeak eta agudoak nola entzuten ziren, eta ahotsa nola entzuten zen ere. Joan den urtea Lurpen jotzen itxi genuen, eta eboluzio potente bat egon zela esan ziguten.

Nola erabaki zenuten taldearen izena?

Ermuko eta Elgoibarko taldea, bi urte daramatzate jotzen eta lehenengo albuma argitaratu berri dute, *Malkoaren Distira* deitutakoa. Taldekideak: Guti, gitarra eta ahotsa; Miguel, baxua eta ahotsa; Alex, gitarra eta Gaizka, bateria.

Beste izen batzuk pentsatuta genituen, baina azkenean Makisekin geratu ginen. Spotifyn begiratu genuen kuriositatez, eta izen hori bazegoen, beraz Makis 37ra aldatzea erabaki genuen. Tekno arraro bat egiten zuen errusiar bat zen bestea.

Zertaz doa diska berria?


Eremu kaotiko honetan dagoen panoramaren aurrean itxaropena sustatu nahi izan dugu. Emigrazioa, Mediterraneo itsasoan gertatzen diren erailketak, aldaketa klimatikoaren inguruko testuingurua, eta gero gerra zibilean gertatu ziren pasaje indibidualak ere kontutan ditugu, jendearen istorioak islatzen ditugu abestietan. Honetaz gain, maitasun kantak ere baditugu.

Kontzerturik emango duzue?

Gure herriko jaietan joko dugu eta gerora ere estatu mailan jotzeko aukera izango dugu.

Non lortu daiteke zuen diska, *Malkoaren Distira*?

Youtuben eta Spotifyn dago jada, eta fisikoa lortu nahi izanez gero instagramen bidez, kontzerturen batean edota Ermuko London eta Elgoibarko Derry tabernetan.





Ogi birrinduaz gozatzten

Haurreskolako txikienek ogi birrinduarekin esperimintatu dute. Bertan hondartzako harea izango balitz bezala, jolasean ibili dira. Manipulatzeko objektu ezberdinak baliatuz ere (kuboak, koilarak, edalontziak, maskorrak, iraztontziak...) sentsazio eta zentzumen ezberdinak bizi izan dituzte. Asko gozatu dute trasbaseak eginez, edalontziak bete eta hustuz... Eta nola ez: dastatzen! Zein goxoa zegoen!

Ebakuazio simulakroa



Legeak agintzen duen bezala, ikasturtean zehar Ermuko Haurreskolan ebakuazio simulakro 2 egin behar dituzte. Ezbeharren baten aurrean (sute bat dela, argia joan dela, alarma jotzen hasi delako...) bertako hezitzaileek nola jokatu behar du-

ten argi izan behar dute, eta 4 hilabetetik 2 urte bitartera dituzten haurren artean lasaitasuna bermatzen duten bitartean haurrak Haurreskolatik bilgunera ahalik eta arinen eraman behar dituzte. 22/23 ikasturteko 2. ebakuazio simulakroa maiatzean izan da eta 4 solairutan banatuta egon diren 46 haur 4 minutu eta 45 segundotan atera dira. Euskal Herriko errekorra izan dutela esan daiteke. Bai haur bai hezitzaileak... guztiak txapeldunak!!

Badator Ermuan Bagara...

Aurten Euskal Birusa elkarteak Haurreskolari Ermuan Bagaran parte hartzeko gonbitea egin dio eta Haurreskolan maiatzean zehar 1-2 urte bitarteko haurrekin ostiralero "Ermuan Bagara festa" egiten ibili dira. Egun hauetan, mozorroak, globoak, musika, dantzak eta ondo pasatzeko gogoak izan dira nagusi. Ermuan Bagara bideoan iritzeko grabaketa ere egin dute.



Infreñu Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

uriarteasesores ✓

Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

Patxi tabernia



Foto Plazaola 1970 - SJ1713

Erdiko kalia hasieran, ate bat zabaltzen zuen kale honetara eta beste bat plazara. Ongi Etorri zekan izena, baina ugazabianagaitxik zan ezaguna: Patxi tabernia. Francisco Zuazua, jaiotzaz eibartarra bazan be, "Patxi Katalana" zan bere gatzizena. Entzute handikua ein ziran bertako banderillak, urtietan eta urtietan pezetara saltzen euki zitxuanak. Bizpahirutik gora ezin zan jan, bezero guztientzat aillegau zeizazen. Tabernetan lehelengo telebiziñua, bertan jarrai zan eta telefonua be hasiera-hasieran: zenbakixari erreparatzia besterik ez dago, 943-17 00 00. Hainbat herriko talderi, lokala falta baeben, bertan lagaten zotsen Patxik txokotxo bat materixalak gordetzeko, bilerak eitzeko... 1982 hil zanian, Irene Zarraga andriak eta Javi semiak jarraitu eben, 2008an laga zotsen arte. Eraikinak onduan dakan plazatuari Patxi plaza esaten jako gaur egun be.



Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA

Egunero zabalik
08:30etik aurrera

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel.
943170542



JULENE IRAZU

Bizitza, sormena, garapena

**“Gizakia,
espezie bezala,
garapenean
dago uneoro”**

Zenbatetan gelditu, hausnartu eta gure sustraiak sentituz joan gara iraganerantz? Nondik gatozen, zelan garatu zen gure gorputza, zelan egin genuen aurrera hainbeste urteetan zehar.

Espezie bezala biziraupena elikagaien inguruan, gerrateek, gaixotasunek eta, momentu garrantzitsuenetarikoa, sua egiteko trebetasunak espeziearen iraupena finkatu zuten.

Badira jada 4.000 milioi bat urte bizia sortu zela ama lurran. Gaur egun gutxitan pentsatzen dugu garai haietan, baina Burgoseko Gizakiaren Eboluzioaren Museoan gizakiaren garapena erraz eta oso era didaktikoan gogorarazten digute.

Gizakia, espezie bezala, garapenean dago uneoro. Gaur egun *Homo Sapiens* gara, baina lehenago lehengusu pila izan ziren: *Homo neanderthalensis*, *Homo floresiensis*, *Homo antecessor*... eta gehiago.

Zuhaitzeko garapenera bazoaz, txingurri bat garela konturatzen zara. Apenas pasa da denbora sortu ginenetik, baina hala ere oso denbora gutxian teknologikoki kristoren garapena bizi izan dugu. Horrek, bestalde, gure izatearen naturatik urruntzen gaitu eta aurrera goazen heinean gure ingurumena zapaltzen eta desagerrarazten goaz, kontutan izan gabe gakoa dela ekosistemaren oreka mantentzeko.

Garapenaren munduan, gero eta erosotasun gehiago ditugu, baina konturatzen ahal gara txanponaren beste aldean biziraupenerako ezinbestekoa den natura galtzen ari garela?

Izango gara gai hori kontuan izateko eta zaintzeko? Gutxi batzuk gutxiago eduki, oso gutxi dutenek pixka bat gehiago izateko, ama lurra errespetatu, oreka bat lortu eta mantentzeko?

PROTECCION LABORAL
Y AN BATES-ERAKO
ORDURRA

SEHIGA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

ZERMik

SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMik INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikokoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren birtartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

Udal Euskaltegia

Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com



ON EGIN!

gida gastronomikoa

2023ko Debabarreneko jatetxe eta tabernen gida

Ondo jateko ere, ez daukagu urrutira joan beharrik. Erreparatu bestela hurrengo bi orrialdeoi. Gastronomia eskaintza paregabea daukagu Debabarrenean, tradizioetik eta modernotik, bietatik duena, eta batez ere, eta bereziki, moko finenak ere gustura uzten dituena. Bokatak, mokadutxoak, eguneko menua, karta... egin zure aukera, eta on egin!



AGUIÑASPI Taberna

Urkizu 22, EIBAR

943 128 086

Menu berezia enkarguz, gosariak, plater konbinatuak, razioak, bokatak, hanburesak, pintxoak...



ALBERT Taberna

Miguel Aginaga 6ac, EIBAR

943 383 177

Eguneko menua, asteburuetako menua eta karta.



BAISI Taberna

Urkizu 11, EIBAR

943 530 816

Espezialitatea: patata-tortilla, entsaladilla, bokatak, hanburesak... Ardoetan aukera zabala.



BARATZE Gourmet

Bidebarrieta 39, EIBAR

943 845 503

Jatetxe-taberna kontzeptu berria, pintxoak, razioak, karta eta ardo aukera zabala. Etxera eramaten dugu.



BIRJIÑAPE BERRIA

T. Etxebarria 16, EIBAR

943 821 341

Eguneroko menua, bokatak, ospakizunak. Zure aurrekontura egokitzen gara. Etxerako zerbitzua,




BOSSA Gastroteka

Ego Gain 7, EIBAR

943 206 753

Etxean bezala. Gosariak, pintxoak, bokatak, razioak, pizzak eta hanburgesak.



BURU ZURI taberna

Lersundi kalea, 23, DEBA

943 191 034

Ogitartekoak, plater konbinatuak, gosariak, razioak, pintxo bereziak, Luntxak.



GABI jatetxea

Kalebarren plaza. ELGOIBAR

943 741 230

KM 0 jakiekin egindako sukaldaritza. Jaunartzeak, bataioak, luntxak, eguneko menua, karta, enpresa bazkariak....



IBAI-ONDO jatetxea

Giza Eskubideen parkea, ELGOIBAR

943 256 028

Bazkari tradizionalak, parrilla, enpresa menuak, karta eta eguneko menua.



KILI KILI Croissanteria

Ibarkurutze 12, EIBAR

943 202 401

Eguneko menua, menu bereziak, gosariak, pintxoak, bokatak, afariak, txokolatea eta txurroak...



LABATAI taberna

J.M. Ostolaza kalea, 1, DEBA.

943 509 910

Gosariak:06:00etatik aurrera, pintxoak, ogitartekoak eta plater konbinatuak.



LANDA jatetxea

Garagartza kalea, 32, MENDARO.

943 756 028

Denboraldiko produktuekin egindako karta. Espezialitatea parrillan: haragi, arrainak eta itsaskiak. Ez da afaririk zerbitzaten.



LUZAIDE jatetxea

Mendarozabal z/g. MENDARO

943 756 166

Eguneko menua 14€ astegunetan. Asteburu eta jaietako menua 17 €. Menu bereziak enkarguz.



SU BEROA Taberna

Bista Eder 11, EIBAR

943 477 779

Gosariak, eguneko menua, talde menua, pintxo bereziak, bokatak, karta, razioak...



TIKI TAKA Taberna

San Andres pasealekua 2, EIBAR

943 284 006

Eguneko menua, asteburuetako menua, karta, razioak, pintxoak...



TXALTXA Jatetxea

Isasi 7, EIBAR

943 201 126

Karta, kartatik kanpo eta menua astegunetan. Astelehenetan itxita.



TXARRIDUNA jatetxea

Ermuaranbide 1, ELGOIBAR.


943 740 490

Eguneko menua astelehenetik ostiralera, larunbatetan menu berezia, karta, kintoak, bataioak, familiako bazkariak...

1965

E R M U A

Urte horretako martxoaren 10ean *Los Golfos* antzezlan komikoa taularatu zuten Teodoro Garitanok, Angel Mari Gastónek eta Cosme Cortazarrek. Honek bakarrik jarraituko zuen antzerki munduan eta bere aurrengo lana izan zen. Gidoia idazteaz eta dekoratuak egiteaz gain, zuzentzeaz ere arduratu zen. Parrokiako saloian aurkeztu zuten domekako hiruretako umeen zine emanaldiaren ostean eta, zueden neska-mutikoez gain, herriko jende gehiago bertaratu zen.



1993

M A L L A B I A



Argazki hau 1993 ingurukoa da eta Beheko Iturrian aterata dago. Bertan Andres Madariaga, Macario Biritxina-ga, Juan Etxenagusia, Jose Mari Agirre, Albino Pradera eta Jose Abendibar agertzen dira.

Andres Madariagak, "Katillu", kontatu du nola argazkian agertzen diren lagunak elkartu ziren Beheko Iturrian mahai bat ipintzeko. Andresen baserri inguruan harri losa bat omen zegoen, lurrarekin erdi tapatuta, eta pentsatu zuten harekin mahai bat egitea. Bertan dagoen erreka gaintik zubiarena

egiten omen zuen harri horrek lehen, eta zubi berria egin zutenean harri hura kendu zuten. Kostata, harria bistaratu omen zuten, eta ondoren Andresek ekarritako gruarekin aurretik prestatutako blokeen gainean jarri zuten, Juanek eta Jose Marik igeltsero lanak eginda. Ondoren pentsatu zuten San Roke egunean urtero bertan bazkalduko zutela, baina bazkaria lehen urtean bakarrik egin omen zuten.

IRAGARKI LABURRAK

Haurrak zaintzeko neska eskaintzen da, esperientziaduna eta Haur Hezkuntzan graduatua.
☎ 685584587

Matematikako, fisikako eta kimikako klase partikularrak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat ☎ 688 68 36 55.

EHUko fisikako ikasleak eskola partikularrak ematen ditu: DBHko Matematika, Fisika eta Kimika ☎ 626514969

Pintura/eskultura estudioa konpartitzeko pertsona bat bilatzen ari gara. Ermuko Komentukua kalean
☎ 688695331



Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara: drogeten@gmail.com
Azken eguna: **Ekainaren 22a.**



Maiatzaren 27an
Zorionak bitxito!!!!
Ederto pasatu zure urtebetetzean eta jarraitu beti hain irribarretsu. Maite zaitugu.



Ekainaren 1ean
Zorionak **Iago** zure bigarren urtebetetzean, bihurritxo! Ama, aita eta Aimarrek egun polita opa dizugu. Maite zaitugu, laztana!



Maiatzaren 11n
Zorionak **Enara!!**
Orain dela urtebete heldu zinen gure bizitza hankaz gora jartzera. Besarkada handi bat ama, aita, Misfits eta familia osoaren partez. Asko maite zaitugu, politta!



Ekainaren 27an
Zorionak **Hodei** zure 9. urtebetetzean. Gozatu eguna eta jarraitu zaren modukoa izaten. Muxuak etxekoan partez.



Maiatzaren 22an
Zorionak **Lander** zure 6. urtebetetzean! Musu asko amama eta aititeren partez.



Maiatzaren 4an
Zorionak **Nora** zure 5. urtebetetzean. Musutxo asko zure amama eta aititeren partez.



Maiatzaren 31n
Zorionak **Katixa!** ladanik 4 urte!
Familia eta lagun artean ospatuko dugu zure eguna! Mosu handi bat etxekoan partez. Maite zaitugu!



Ekainaren 19an
Zorionak **Vega!** 6 urte gure neska handi! Disfruta-tu topera zure eguna eta segi horrela, maitia! Patxito erraldoi bat amatxo, aitatxo eta Mateoren partez! Asko maite zaitugu, gure "bailonga" gogokoena!!!



Ekainaren 6an
Zorionak **Naiat** eta **Xuban**, **Maiatzaren 10ean**
Zorionak hirukote! Disfruta topera zure eguna. Muxu erraldoia familia guztiaren partez.

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

aral

Luis Cañas	Cair
Amaren	Casar de Burbia
Cair	Bodegas Valdemar
Ehun	García de Olano
Txakoli Astobiza	Manzanos Wines
Pazo Señorans	Pemorad Ricard Wines
Cava Oriol Rossell	Faustino García Martínez.

aral@aral97.com | Pol. Goitondo-Goihoa, Parc.7 - Pob.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

nitida
T.943176075

RIF
ITURGINTZA
KONPONKETAK
Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

MUSIKA

Hilak 2:

Kontzertua: Lengualerta ("México Rebelde" jardunaldiak). 19:00etan. Orbe kardinalaren plazan.

Hilak 3:

Agur-kontzertua: Stai Zitto (talde gonbidatua: Orihen). 21:00etan. Orbe kardinalaren plazan.

Hilaren 13tik 15era:

Ikasturte amaierako kontzertuak: Alboka Musika Eskolako ikasleak. 19:00etan. Lobiano kulturgunean.

Hilak 22:

Kontzertua: Alboka Musika Eskolako ikasleak (Alboka Eguna). 20:00etan. Orbe kardinalaren plazan.

Hilaren 30ean eta 1ean:

Elektrojaiak. Martxoaren 8a plazan (30ean) eta Betiondoko aparkalekuan (1ean). 18:00etatik aurrera.



ANTZERKIA

Hilak 29:

Ikasturte amaierako emanaldia. 19:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera dohainik.

DANTZA



Hilak 10:

Txindurri Eguna: Dantza poteoa, dantza erakustaldia, erromeria eta larraindantza. 12:30etik aurrera Orbe kardinalaren plazan.

Hilak 11:

Txindurri eguna: kalejira, dantza erakustaldia, herri bazkaria eta erromeria. 11:00etatik aurrera Orbe kardinalaren plazan.

Hilak 16:

Ikasturte amaierako emanaldia: Taupada Dantza Eskolako ikasleak. 20:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera dohainik.

ERAKUSKETAK

Hilaren 5etik 25era:

"Bakardade ikusiezina". Lobiano Kulturgunean.

Hilaren 22an:

Margoak: Udal Margo Eskolako ikasleen lanak. 16:00etatik 20:00etara. Lobiano Kulturgunean.

BESTELAKOAK

Hilak 3:

Ermuan Bagara: hainbat ekitaldi hainbat lekutan. 10:00etatik aurrera.



Hilaren 12etatik 18ra:

Gastronomiari buruzko jardunaldiak: hainbat ekitaldi.

Hilak 18:

Aire zabaleko margo lehiaketa. 9:00etatik aurrera.

Hilak 23:

San Juan sua: hainbat ekitaldi. 22:00etan. Orbe kardinalaren plazan.

Hilak 24:

El Rozioko erromeria: hainbat ekitaldi. Betiondoko aparkalekuan. 11:00etatik aurrera.

Hilak 24:

Afrikari buruzko jaialdia: hainbat ekitaldi. 10:00etatik aurrera. Orbe kardinalaren plazan.

Patxi López

**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Errealak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzariak

Zeharbatea 8 Tel. 943 17 65 61 ERMUA

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

PRO
arraindegia

**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA



**NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA**

- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Horts estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea



Horts klinika berri eta handitu dugu

San Inazio 4
Ermua

Tel.: 943 030 512
niklinika@gmail.com



irale
Horts Klinika
Clinica Dental

C/ Zeharkalea, 8
48260 Ermua, Bizkaia
Tel. 943 17 71 34

OSASUN GIDA



IRAZ
Odontologia
Fisioterapia

943 578 617
615 793 717
www.irazuklinika.com




Zuri egokitzen
den odontologia

La odontología
que se adapta a tí

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI col. nº 1264

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

943 17 04 04
info@clincasanpelayo.com
San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)



AMALUR
FISIOTERAPIA

688 61 98 96
zeharkale 12 bajo
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col.1666 EGOITZ FORMOSO col.1675



OINAK
LEIRE MAYORA
PODOLOGOIA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
943 17 47 44

Osasun Gidan agertu nahi baduzu,
deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara,
edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera.

BIZI EUSKARA HURBILETIK



EUSKALTEGIAK

Ikastaro trinkoak
Etxe ondoan
Euskara ikasteko
Azterketak prestatzeko



2 ASTEKO BARNETEGIAK

Euskara-eskolak
Euskaraz bizitzeko
Azterketak prestatzeko



FAMILIA BARNETEGIAK

Euskara ikasteko
Seme-alabekin
euskaraz aritzeko



ONLINE IKASTAROAK

A1, A2, B1, B2, C1, C2



673 200 100 / 946 464 000

www.aek.eus

2023

UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

KALTXANGO AEK EUSKALTEGIA

IKASTARO TRINKOAK: EKAINA | UZTAILA | IRAILA

Ekainaren 26tik uztailaren 21era (80 ordu)

Izena emateko azken eguna: ekainaren 16a

Irailaren 1etik 28ra (80 ordu). Izena emateko azken eguna: uztailaren 14a

Irailaren 18tik 29ra (30 ordu). Ikasturtean zehar ibilitako ikasleentzat

4 ORDUKO IKASTAROAK. Goizez zein arratsaldez
Diruz lagunduak

ADI!

23-24 ikasturterako AURREMATRIKULA ere
zabalik egongo da ekainaren 28ra arte.

Zearkale 16, beheka 48260 Ermua

Kaltxango@aec.eus / 688 746 480 edo 607 623 961